

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtzesko baliabideak, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta diru sarrerak lortu ahal izango ditu Blind Jewellery-k.

### Baliabide fisikoak:

- **Instalazioa:** ez dugu instalaziorik behar guk produktua ez dugulako ekoiztu behar
- **Bulegoa:** Lehenengo bulego bat alokatu behar dugu gure enpresa funtzionatzen duen ikusteko. 90m<sup>2</sup>-ko bulego bat alokatuko dugu.
- **Sistema informatikoak:** Email masiboak bidaltzeko web orri bat.

Access erabiliko dugu datu baseak eramateko. Gure bezeroen eta enpresaren informazioa gordeko dugu datu baseetan. Bezeroen informazioa Wifi-a beharko dugu horregatik Euskaltekin kontratu bat edukiko dugu.

### Baliabide intelektualak:

- **Marka:** Gure enpresako marka guk sortuko dugu, hau da, Blind Jewellery, logoa bezala, adostutako diseinuarekin.
- **Patenteak:** patenteak egingo ditugu, dokumentu batean erregistratuko duguna, lapurketarik ez izateko.
- **Elkarteak:** Gure negozioa elkarrekin sortuko ditu Telegram bidez.

BLIND  
JEWELLERY

Giza baliabideak: negozioa aurrera eramateko 5 pertsona egongo gara. Web orria diseinatzeko kanpoko enpresa. Lantaldeak ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- **Sormena:** sormena beharrezkoa izango da gure produktua bezeroei modu original eta berezi batean helarazteko. Gainera, produktua promozionatzeko eta honen publizitatea egiteko ere sormena funtsezkoa da.
- **Ezagutza:** produktuaren merkaturatzea egokia izateko merkatu ezagutza eduki beharko dugu, hau da, merkatuaren ezaugarrien eta bilakaeraren inguruko informazioa eduki beharko dugu.
- **Gaitasun komertziala:** produktua ondo sal dadin bezeroak erakartzeko gaitasuna beharrezkoa izango da, beste hitz batzuetan, modu aktiboan bezeroak gure produktua kontsumitzera animatuko ditugu estrategia komertzial ezberdinak erabiliz.

### Finantza baliabideak:

- **Eskudirua:** Lehenik eta behin gure eskudirua erabiliko dugu. Enpresako kide bakoitza 2 mila euro jarriko ditu eta honela 10 mila euroko aurrekontua edukiko dugu gure enpresarako gastuentzat.
- **Kreditu-linealak:** Banku edo erakunde bati eskatutako kredituaren muga baten barruan mailegu bat erabili dezakeen. Interesak, maileguaren erabilitako zenbatekoaren arabera, kobratzen dira.  
50 mila euro eskatuko diogu bankuari gure produktua aurrera eraman ahal izateko. Gure produktuaren hornitzaileak Arena Roja eta Irontec izango dira. Arena Roja enpresa gure gure bitxien hornitzailea izango da eta Irontec ingenieritza elektronikoaren enpresak bibrazio sistema eta gps- a ezarriko ditu. Enpresa bakoitzari 20 mila euro ordainduko dizkiogu gure bitxien produkzioaren truke. Geratuko diren beste 10 mila euroak lokalaren alokairua, produktuaren packaging-erako eta aurrezki moduan gordeko dugu.